

## KALEAK BERRITZEKO LANAK

# Elkano eta Lizeagako obrak atzo hasi eta bihar bukatuko dituzte

Kaskoko lanak bukatzean auzoetakoak hasiko dira; bi hilabetekoa da proiektua.



**Bi egunetan dena bukatzeko martxa ederra!**

Atzo hasitako asfaltatze lanak bihar bukatuko dituzte Elkano eta Lizeaga kaleetan. Atzietakoak ostirala arte luzatuko dira. Erdiguneko kaleak konpondu, eta baldin enpresak larunbatean lanik egingo balu, Atsegindegi berria bezala utziko lukete asteburuan.

### KALETIK AUZORA

Astelehenean berriz ere lanari

erasoko diote Zikuñagako bidean, eta gero datoz San Antonio Paradorea, Sagastialde eta Floridako parkea eta Akan-Juanantoneneako bide berri-  
tzeak.

### BI HILABETE

Asfaltos Naturales de Campezo S.A. enpresa ari da kaleak asfaltatzen. Proiektuak eguraldia lagun badu, hasitako lanak bi hilabetetan bukatzea aurreikusten du. Herriko kasko

eta auzoetako bideberri-  
tzeak ia 25 miloiko aurrekontua dute.


### BIDE BATEZ, FIBRA OPTIKOA

Asfaltatze lanak aprobetxatuz, gerora fibra optikoa pasatzeko tuboak sartzen ari dira Telefonica eta Euskaltel enpresak. 'Komunikabide' bihurtuko dira laister Aristizabal, Iturriaga, Elkano, Larramendi eta Onyi kaleak, eta Sandiusterri eta Elizatxo inguruak. □

## BOLO JOKOA

# Ibon Miner Ereñotzuarra nagusi Zerainen

Jose Mari Zelarain bigarren eta Jose Lizaso laugarren, joan den astearteko Andramari Sarian.



Ibon Mimer saria eskuetan duela.

HIRU hernaniar lau aurrenekoetan. Zeraingo Andramari Saria herrialde mailako sari-keta da eta Gipuzkoa osoko 55 bolari aritu ziren.

### EMAITZAK:

Txapelduna: **Ibon Miner (36)**  
2-J. M. Zelarain -CDH-(36)  
3-J. Juaristi -Legazpiarra- (35)  
4-Jose Lizaso (35). □

## Gaur feria eguna



OSTEGUNETAKO feria bisitatzeko aukera dago gaurkoan. Eguerdi aldean Atzietan barrena barazkijale eta hegazti zaleek izango dute zer erosi. Urbieta pasealekuan berriz, arropak eta txorixoak zintzilikatuko dituzte postuetan, eguerdian hasi eta arratsera bitarte. Erostun uholdeek eta bi gurpileko karroek ilara luzeak osatuko dituzte bidean. Latxunbe Berritik Urbietarako zentzuan kotxeek ezingo dute pasa

## KOTXEENTZAT ITXITA EGONGO DIREN BIDEAK

### Ostegunean

Eguerdia arte, **Lizeaga** kalea.  
Ilunabarra arte, **Elkano** kalea.

### Ostegunetik ostiral eguerdia arte:

**Atziet**a kalea.

### Larunbatean

(baldin lan egiten badute) **Atsegindegi**

### Astelehenetik aurrera

**Zikuñaga** auzoa

**brintza**

BRINTZA, S.L.

Juan de Urbieta 15  
Tel. 943 33 12 67  
Faxa.: 943 33 08 92  
20.120 HERNANI



LAN AHOLKULARITZA  
AHOLKULARITZA FISKALA  
ASEGURUA, INBERTSIOAK



HB-K ETA HAIKA-K DEITUTA KONTZENTRAZIOA EAJ-REN BATZOKI AURREAN

## “Adierazpen gutxiago eta urrats gehiago” eskatu diete EA eta EAJ-ri

HB-ko eta Haika-ko ordezkariak EAJ-ri komunikatu bana eman nahi izan zieten, baina, inor atera ez, eta buzoian utzi zituzten.



Kontzentratuak orduerdi egin zuten Txirrita kaleko errepede ertzean.

SU etena bukatuz geroztik atzo izan zen EAJ-ren Batzoki aurrean lehenengo kontzentrazioa. Errepidearen alde batean ehun bat lagun eta bestean Ertzantza. Ordu erdi inguru iraun zuen eta ez zen inongo istilurik izan

“NATURALKI DESAGERTU”  
Hernaniko Ezker Abertzaleak

Eusko Alkartasunari eta Eusko Alderdi Jeltzaleari bidalitako idatzian “epelkeria eta anbigutasunak” uzteko eskatu dio. Gainera, jakinaren gainean jar-tzen du “Euskal Herriaren eskubideen alde lan eginez, gatazka politikoaren ondorio batzuk (kale borroka, borroka armatua...) naturalki desagertuko direla.” Eta, azkenik, “herri honen aldeko apustuan” EAJ-k

Ezker Abertzalea “ondoan izango duela.”

**BATZOKIA HUTSIK**  
Hernaniko Kronika saiatu zen Eusko Alderdi Jeltzalearen iritzia jasotzen, baina, ezin izan du ordezkariekin kontaktatu.

**GAUR “AZTORATZEA”**  
20:00etarako plazan asanbladara azaltzeko deia egina dago. □

### PELOTA

## Segovian Oiaga eta Guadalajaran Esnal irabazle

ASTELEHENEAN, Segoviako “La Matilla” herrian Oiagak joko bizia jarri zuen Alonso lagun zuela, partidua aise menderatuz. Esnal eta Bazeta ez ziren hain fin aritu eta galdu egin zuten. Asteartean Esnalek Guadalajaran jokatu zuen. Indarrak berdinduak egonagatik, azkenean Esnal eta Alonso nagusi.



### EMAITZAK

Segovian  
Oiaga-Alonso 25 / Oar Arteta Zubiaga 11  
Esnal-Bazeta 15 / Zabala-Oregi 25

Guadalajaran  
Esnal-Alonso 25 / Oar Arteta-Zubiaga 20

### HITZ BITAN

#### ✓ ERREMONTEA

Aizpuru eta Zeberio II. a ‘Bingo Londres’ sarian aurrez aurre. Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Partiduko Irabazleak Eizagirrenen aurka jokatu du final aurreko txartela lortzeko. Gaurko erremonte jaialdian beste hiru partidu izango dira.

#### ✓ BATZAR BEREZIA

Hernaniko Udala Ekain Ruizen identifikazio ofizialaren zai dago batzar berezia egiteko. Ezer ziurrik esan ez baliteke ere, datorren ostiralerako identifikazio ofizialari buruzko zerbait jakingo ote den zurrumurrua dabil. Nolanahi ere, EH-ko iturriek *Kronikari* aurreratu diote omenaldi egunerako greba orokorra konbokatuko dutela Hernanin. □

### A G E N D A

#### ❖ GOIZUETAKO FESTAK

⇒ 12:30 Eskuz binako pelota partidua: Apezetxea-Navarro Saralegi-Bengoetxea

⇒ 20:00 Bertso saioa.

⇒ 24:00 Dantzaldia “Trikitake” taldearekin.

#### ❖ DONOSTIAKO ASTE NAGUSIA

⇒ 17.00 Nazioarteko fanfarre lehiaketa. Bulebarrean.

⇒ 17:30 Pelota partiduak. Trinitate enparantzian.

⇒ 20:00 “Kresala” taldearen folklore emanaldia. Konstituzio plazan.

⇒ 22:45 Su artifizialak. Asturiaseko “Pablo” etxearen eskutik.

⇒ 24:00 Dantzaldia “Akelarre” taldearekin, Pasealeku Berrian.

### HERIOTZAK

Elias Señorán Fuentes Jauna

Herenegun hil zen 82 urte zituela.

### TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093

► Udaltzaingoa: 943 33288

► DYA: 943464622

943 335533

► Anbulatorioa: 943 557750

### FARMAZIAK

► Egunez: Chucla

Kardaberaz, 48  
☎ 943551793

► Gaez: Chucla

Kardaberaz, 48  
☎ 943551793

Zure publizitatea  
hemen

# HERNANIKO kronika

☎ 943 330899

kronika@topagunea.com